

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2017ko AZAROAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko azaroaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


EZ DA BERTARATZEN: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.
...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko urriaren 5 ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 5 de octubre de 2017.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Larraulgo Agiñezabal Handi baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena eskera, K.I./ Solicitud de licencia de obras para arreglo de tejado del Caserío Agiñezabal Handi de Larraul, K.I.**
4. **S.G. andreak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada./Estudio de la ayuda economica solicitada por S.G.**
5. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
6. **Beste batzuk/Otros.**
7. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
 - 7.1. **Azaroak 25: “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna” adierazpen instituzionalaren onspena./ Aprobación de la declaración institucional, “ 25 de noviembre, Día internacional contra la violencia hacia las mujeres”.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko urriaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

20/2017 Alkatetza Ebazpena, urriaren 27koa, L.M.A. jaunari, pinuak garraiatzeko, Larraulgo herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

21/2017 Alkatetza Ebazpena, urriaren 26koa, 2017ko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO AGIÑEZABAL HANDI BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, K.I.

Ikusirik K.I. jaunak eginiko eskaera, non Agiñezabal Handi baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, 2017ko azaroaren 7an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO AÑEZABAL HAUNDI BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

K.I. jaunak, Larraulgo “Añezabal Haundi” baserriaren teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila, lata eta teilatu hodiak ordezkatzera izango da. Eskarian, ekialdeko fatxada margotuko dela esaten da ere. Lan hauen aurrekontua, 19.465€-koa da (BEZ-a gabe).

“Añezabal Haundi” baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, *D.20 produkzio zonaldean* bereziki. Larraulgo arau subsidiarioen arabera, eraikinak ez du katalogazio berezirik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen dira, eta 66º artikuluan baserrien zaharberritzearenak.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.- Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.I. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Agiñezabal Handi baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena ematea, aurkezturiko aurrekontuan arabera, eta betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri K.I. jaunari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

S.G. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA.

Ikusirik S.G. andreak eginiko eskaera, non urritik ekainera bitartean, Lazkaoko Maizpide Euskaltegian, euskara ikasteko ikastaroak egiteko asmoa duela jakitera ematen du, pentsio erdiko jardunaldian. Horretarako Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: S.G. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Lazkaoko Maizpide Euskaltegian euskara ikasteko ikastaroak egiteko diru-laguntza onestea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.
- Maila bakoitza behin bakarrik diruz lagunduko da.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, hilero Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.


BIGARRENA: Erabaki honen berri S.G. andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERTSOZALE ELKARTEA	108,70
BERTSOZALE ELKARTEA	207,71
ALKAIN	128,25
LEYCOLAN	145,20
MEGA	27,41
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	886,96
CORREOS	17,46
TOLOMENDI	152,50
BERRI LANTEGIA	24,20
KIROLZER	61,70
ZU ETA BIOK	819,72
EBA ERKIZIA	861,39
BERRI LANTEGIA	77,29



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	173,11
IBERDROLA	86,56
IBERDROLA	31,13
IBERDROLA	246,91
EDP	55,72
EDP	10,26
MOVISTAR	73,23
MOVISTAR	132,86
MOVISTAR	17,99
MOVISTAR	56,74
MOVISTAR	18,15
CORREOS	0,39

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.421,54** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

6.1. HERRIKO JAIEN ANTOLAKETARAKO BURUTURIKO EKARPENAREN, JUSTIFIKATZEKE EKARPENAREN ZURITZEA, HALA BADA

Udalbatza honek, aho batez, puntu hau, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.


Ikusirik 2017ko maiatzaren 11an eginiko udalbatzarrean, 2017 urteko herriko jaien antolaketa finantzatzeko, 7.000,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena Kultur Batzordeari burutzea erabaki zuela, justifikatzeke ekarpen modura. Diru-kopuruaren arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango zelarik.

Ikusirik Cristian Pizarro Kultur zinegotziak prestatu duela herriko jaien antolaketarako Udalak eginiko ekarpenaren zuritze dokumentua. Ondorengoa izanik:

ORDAINKETAK 2017

Kontzeptu ezberdinak


Argi engantxeak	332,75 €
Iberdrola	185,89 €
Ezenarioa	60,00 €



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ezenarioa GARRAIOA	163,35 €
Elkarte gastu ezberdinak (mus)	25,35 €
Etxeferoak	48,61 €
Maskuriak	30,86 €
DYako kotxea	181,50 €
Boteluzeko Bazkaria	288,23 €
Everesting challenge	29,24 €
	1.401,22 €
Haur ekintzak	
Janaria	48,73 €
puzgarriak	880,00 €
Ogiak	30,00 €
Harategia	156,60 €
Elkarte gastuak	53,60 €
Goxokiak	60,17 €
Altxorraren bila globoak	1,95 €
Guraso bazkaria (elkartea)	126,81 €
	1.357,86 €
Sagardo probaketa	
Ogia	25,00 €
Sagardoa	40,00 €
Txorizua	136,26 €
Basoak+Sakakortxoak	27,83 €
Elkartea	18,50 €
	247,59 €
Opariak	
Trofeoak	207,24 €
	207,24 €
Batxuri zopa	
Bol-ak	3,93 €
Ogia	8,40 €
Erosketak	10,40 €
Elkartea	3,79 €
Gosaria akanpada	29,91 €
	56,43 €
Paella jana	
Kubiertoak eta platerak	12,56 €
Ogiak	25,00 €
Harategia	68,70 €
Erosketak	194,04 €
Gazta	50,25 €
	350,55 €



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hamaiketakoa

Ogia San Esteban	58,80 €
Berdurak San Esteban	12,00 €
Haragia San Esteban	303,19 €
Elkartea San Esteban	320,10 €
Ogia San Bartolome	56,55 €
Berdurak San Bartolome	9,09 €
Haragia San Bartolome	305,64 €
Elkartea San Bartolome	268,89 €
Correos	
	1.334,26 €

Txozna

Edaria	1.171,67 €
Tuberiak	37,63 €
	1.209,30 €

Salmentak

Karretila produktuak	440,00 €
	440,00 €

ORDAINKETAK GUZTIRA **6604,45 €**

JAIK 2017

UDALAREN EKARPENA **7000,00 euro**

ORDAINKETAK GUZTIRA: **6604,45 euro**

BALANTZEA: **+395,55 euro**


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziak prestaturiko herriko jaien antolaketarako Udalak eginiko ekarpenaren zuzeneko dokumentuaren onespena, dokumentu honekin batera fakturak aurkezten dituelarik.

BIGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakitera ematea, sobratutako 395,00 euro Udaletxeko kontuan sartu beharko dituela.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

7.1. AZAROAK 25: "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA" ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA

Ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"


Begirada berria emakumeen aurkako indarkeriari

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da **erreparazio-eskubidea** emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da **ahotsa eta protagonismoa ematea**, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak **sistematikoki aztertuz.**

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Gure konpromisoa **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketasartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa **udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko** edo, hala badagokio, **abian jartzeko**, indarkeria matxistari aurre egitea xede, **emakumeen kolektiboekin etakolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** har.
- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, **beharrezkoak diren baliabideak** eskura izan daitezen, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-ek aurkezturiko azaroaren 25eko adierazpen instituzionala: “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna” bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA